

2025EKO ABENDUAREN 16KO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.

Eguna: 2025-12-16.

Hasiera ordua: 19:30.

Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Inés R. Matxiarena Aldalur

Patxi Castillo Graciarena

José Esteban Aguirre Zubieta

Adela Arlegi Goienetxe

Francisco Larrechea Lazcano

Ángel Pombar Sainz

HERRIRAKO

José Antonio Oyarzabal Iribas

Andoni Andueza Intxaurreondo

JUSTIFIKATU GABEKO EZ EGOTEAK:

María Guadalupe Mendigutxia Etxebeste Maider Iantzi Goienetxe

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel José Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotzirenen batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera bidali zen aurreko bilkurako aktari (2025-11-25). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

Francisco Larrechea bileran sartu da.

2. MATZADA KALEAREN ETA EZTEGARA PASEALEKUAREN ARTEKO HIRI-LOTURA (NA-1310ETIK NA-4410ERA LOTZEN DUEN SAIHESBIDEA) GAUZATZEKO PROIEKTUKO 1. FASEAREN OBRA-KONTRATUA ESLEITZEA.

Ikusirik:

- Matzada kalearen eta Eztegara Pasealekuaren arteko hiri-lotura (NA-1310etik NA-4410era lotzen duen saihesbidea) gauzatzeke proiektuko 1. fasearen obrak kontratatzeke espedientea, 2025eko azaroaren 12ko Osoko Bilkurako erabakiaren bidez onetsi zena.

DATU PERTSONALAK DISOZIATU DIRA

- Kontratuaren balio zenbatetsia 629.063,68 eurokoa dela.
- Publizitate komunitariorik gabeko prozedura irekia jarraitu dela.
- 2025eko abenduaren 1, 11 eta 12ko Kontratazio Mahaiaren aktak, eta haiekin batera igorritako dokumentazioa.
- Kontu-hartzaileak 2025eko abenduaren 12an egindako kontrolatze txostena.

Kontuan izanik:

- Kontratua arautzen duen baldintza administratiboen pleguko 8. puntuak jartzen dituela kontratua esleitzeko irizpideak, kalitate-prezio hobereana duen eskaintza zein den erabakitzea xede.
- Sasoi Eraikuntzak SL enpresaren proposamenak (lizitazioan aurkeztutako enpresa bakarra) bete dituela eskatutako baldintzak eta Kontratazio Mahaiak hura kontratatzea proposatu duela.
- Toki Administrazioiko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren abenduaren 9ko 515E/2025 Ebazpenaren bidez, Berako Udalari 300.000,00 euroko dirulaguntza eman zitzaiola “Matzada karrikaren hiri-konexioa” obrarako, zuzeneko emakida-prozeduraren bidez, eta dirulaguntzaren oinarri arautzaileak ezartzen dituen hitzarmenaren testua eta haren formalizazioa onartu zirela. Hitzarmen hori sinatuta dago.

Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 100. artikuluan xedatutakoaren arabera,

aho batez ERABAKI DA:

1. Sasoi Eraikuntzak SL enpresari esleitzea Matzada kalearen eta Eztegara Pasealekuaren arteko hiri-lotura (NA-1310etik NA-4410era lotzen duen saihezbidea) gauzatzeko proiektuko 1. fasearen obra-kontratua, 629.063,68 eurotan, BEZa kanpo (%0ko beherapena), eskatutako baldintzak betetzen dituelako eta aurkeztutako bakarra izanik.

Urte anitzeko gastua denez, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende dago esleipen hau.

2. Honako hau jakinaraztea adjudikatariari:

2.1. Aurkeztutako eskaintza bakarra denez, etendura epea ez da aplikatzen (2/2018 Foru Legearen 101.2 artikulua).

2.2. Kontratua formalizatu beharko da 7 egun naturaleko epean, esleipen honen jakinarazpenetik kontatzen hasita.

3. Esleipen hau argitaratzea iragarki taulan, web orrian eta Nafarroako Kontratazio Atarian.

4. Erabaki hau jakinaraztea adjudikatariari.

3. BARATZAREN APROBETXAMENDUA 4. POLIGONOKO 16 H LURSAIL KOMUNALEAN. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Berako katastroko 4. poligonoko 16 H lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedientea, 836,68 metro koadroko azalera.
- Aprobetxamenduaren eskatzailea XXX dela eta onuradun izateko Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 16. artikuluko baldintzak betetzen dituela.
- Aprobetxamendua arautuko duten baldintza administratiboen agiria egin dela. Jasota dagoela, halaber, udal mendizainaren txostena.
- Idazkariak txosten juridikoa egin zuela 2025eko abenduaren 15ean.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua, Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 86 *bis* artikulua, eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduan (urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua) bat datozenetan ezarritakoarekin bat etorriz,

aho batez, legez eskatzen den gehiengo osoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea katastroko 4. poligonoko 16 H lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedienteari.
2. Aprobetxamendua arautuko duten administrazio-baldintzen agiria onartzea.
3. Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean.
4. Adieraztea ezen, alegaziorik ez badago, edo aurkeztutakoak ebatzi ondoren, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaiola, onetsi dezan.
5. Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, eta adieraztea ezen, izapide hutseko egintza denez, ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

4. BARATZAREN APROBETXAMENDUA 4. POLIGONOKO 15 F LURSAIL KOMUNALEAN. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Berako katastroko 4. poligonoko 15 F lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedientea, 2.051,91 metro koadroko azalera.
- Aprobetxamenduaren eskatzailea XXX dela eta onuradun izateko Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 16. artikuluko baldintzak betetzen dituela.
- Aprobetxamendua arautuko duten baldintza administratiboen agiria egin dela. Jasota dagoela, halaber, udal mendizainaren txostena.
- Idazkariak txosten juridikoa egin zuela 2025eko abenduaren 15ean.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua, Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 86 *bis* artikulua, eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduan (urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua) bat datozenetan ezarritakoarekin bat etorriz,

aho batez, legez eskatzen den gehiengo osoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea katastroko 4. poligonoko 15 F lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedienteari.

2. Aprobetxamendua arautuko duten administrazio-baldintzen agiria onartzea.

3. Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean.

4. Adieraztea ezen, alegaziorik ez badago, edo aurkeztutakoak ebatzi ondoren, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaiola, onets dezan.

5. Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, eta adieraztea ezen, izapide hutseko egintza denez, ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

5. BARATZAREN APROBETXAMENDUA 4. POLIGONOKO 17 G LURSAIL KOMUNALEAN. HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Berako katastroko 4. poligonoko 17 G lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedientea, 617,65 metro koadroko azalera.

- Aprobetxamenduaren eskatzailea XXX dela eta onuradun izateko Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 16. artikuluko baldintzak betetzen dituela.

- Aprobetxamendua arautuko duten baldintza administratiboen agiria egin dela. Jasota dagoela, halaber, udal mendizainaren txostena.

- Idazkariak txosten juridikoa egin zuela 2025eko abenduaren 15ean.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua, Berako herri-lurren aprobetxamenduak arautzen dituen udal Ordenantzaren 86 *bis* artikulua, eta Nafarroako Toki Entitateen Ondasunen Erregelamenduan (urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretua) bat datozenetan ezarritakoarekin bat etorriz,

aho batez, legez eskatzen den gehiengo osoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea katastroko 4. poligonoko 17 G lursail komunalean baratzaren aprobetxamendua egiteko espedienteari.

2. Aprobetxamendua arautuko duten administrazio-baldintzen agiria onartzea.

3. Espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean.

4. Adieraztea ezen, alegaziorik ez badago, edo aurkeztutakoak ebatzi ondoren, espedientea Nafarroako Gobernuari igorriko zaiola, onetsi dezan.

5. Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, eta adieraztea ezen, izapide hutseko egintza denez, ezin dela errekurtsorik jarri haren aurka.

6. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B36/2025 zenbakidunetik B37/2025 zenbakidunera arte.

- Ebazpenak: 347/2025 zenbakiko ebazpenetik (2025-11-20) 365/2025 zenbakiko ebazpenera arte (2025-12-10).

Gai zerrendatik kanpo, presazkoa dela **ahoz** aitortu ostean, legeak eskatutako gehiengo osoa bete izanik, honako gai hau eztabaidatu da:

BERAKO UDALA ETA CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ADDENDAREN SINADURA ONARTZEA, BAZTAN BIDASOA JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN LURRALDEAREN PLANAN (2023-2026) SARTZEKO, EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION EU FUNTSAK FINANTZATUTA.

Aurrekariak:

- 2024ko abenduaren 20an hitzarmena formalizatu zen Berako Udala eta Cederna Garalur elkartearen artean, Baztan Bidasoa HTJPko ekintza bat gauzatzeko, Europar Batasunaren Next Generation EU funtsak finantzatzeko «BAZTAN BIDASOA» helmugako turismo-jasangarritasuneko plana gauzatzeko emandako dirulaguntzaren barruan. Zehazki, «Beran bizikleta-bidea eraikitze hasierako azpifasea (I. fasea: Bidasoaren ondoko pasealekua)» proiektua.

- Berako Udalak Cederna Garalur elkarteari eskatu dio luzatu dezala hitzarmen horretan jasotako gauzatzeko eta justifikatzeko epea.

- Era berean, Berako Udalak Cederna Garalur elkarteari eskatu dio Baztan Bidasoa HTJPN sar dezala 3.2 ekintza, "Berako bizikleta-bidean ekipamenduak jartzea" izeneko, 76.370,00 euroko kostuarekin.

Hitzarmenaren Addendaren edukia ikusita,

ahoz ERABAKI DA:

1. Berako Udala eta Cederna Garalur elkartearen arteko hitzarmenaren Addendaren testua onartzea, Baztan Bidasoa Jasangarritasun Turistikoaren Lurraldearen Planan (2023-2026) sartzeko, eta alkateari ahalmena ematea aipatutako dokumentua sinatzeko.

2. Erabaki hau jakinaraztea Cederna Garalur elkarteari.

7. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:00ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.